

Musika doinuei jarraika

Eduardo Mokoroaren udaleku musikaletan 24 gaztetxok hartu dute parte ▶ 6



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Ostirala ▶ 2006-07-14 ▶ IV. urtea ▶ 937. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Uliazpi Fraisororen 25. urteurrena ospatu dute

ZIZURKIL ▶ Adimeneko ezintasuna dutenentzako da; bultzatzaileak omendu zituzten atzo, eta bigarren mailako biztanlerik ez duela egon behar aldarrikatu ▶ 2



Down sindromea duten dantzariak osatutako Verdini taldea. I. GARCIA

N. LATABURU



«Euskal Herriko emakume guztion txanda da orain»

TOLOSA ▶ Jendetzaren aurrean aurkeztu dute Ahotsak ekimena Goirizelaiak, Bilbaok, Alzelaik, Zabaletak, Ezenarrok eta Piñolek ▶ 3

LIZARTZA ▶

Gazte Eguna, bihar, aurten egun osoz

Kalejira, bazkaria, ekitaldia preso eta senideen omenez, kontzertuak... ▶ 4

LEITZA ▶

Kanflanka, Nafarroako txapelaren bila, etxean

Harri-jasotzaileen I. Txintxarri Txapelketa jokatu dute Alegian ▶ 5, 7

Gure gomendioa



Kavakalar izenak berotila
Bernat Berche



Zazpi urteak
Leonel Nolasco de Arce



Memorias de una joven doctora
Nerea D. Galand



En el tréves de Schopenhauer
Yvonne Roca

www.elkar.com

elkar

elkar ezagutzen dugulako

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

«Bigarren mailako biztanlerik ez»

Uliazpi Fraisororen 25. urteurrena ospatu zuten atzo, zentroaren bultzatzaileei omenaldia eskainiz

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Uliazpi Fraisoro zentroaren 25. urteurrena bete da, eta atzo egin zituzten ospakizunak. Bertan adimeneko ezintasun handiko pertsonaei, helduak gehienak, ematen zaie zerbitzua. Omenaldietarako aukera baliatu zuten eta zentroaren bultzatzaileak izan ziren alde batetik eta orain 25 urte lanean aritu zirenak omendu zituzten. Mezu bat zabaldu zen nagusiki hitza hartu zutenen artean, Juan Jose Gonzalez de Txabarri Ahaldun Nagusiak laburbildu zuena: «Ez du egon behar bigarren mailako biztanlerik. Biztanle guztiak dute beharrezko dituzten zerbitzuak jasotzeko eskubidea». Txabarrik gizarteari oro har «atzegizale izateko» eskatu zion.

Uliazpi Fraisoro zentroa martxan jartzeagatik omenaldia jaso zutenak ondorengoak izan ziren: Luis Abalde, Luis Astrain, Maria Luis Balenziaga, Jose Luis Basoco, Ignacio Iragorri, Jose Mari Juantegui, Andres Lojo, Carlos Mendoza eta Paul Zubillaga.

Ospakizunaren ekitaldi nagusia izan zen. Aurretik orain 25 urte lanean aritu zirenak izan ziren omenduak. Tartean, down sindromea duten dantzariak osatutako Verdini taldeak sentiberatasunez beteriko emanaldiak eskaini zituzten. Beste une hunkigarri bat omenaldutako langile bakoitzak egoiliar bati oparia eskaini zionean izan zen.

Bazkariaren aurretik, zentroaren sarreran 25. urteurrenaren plaka estalgabetu zuten agintariak. Txabarri Ahaldun Nagusiak gain, besteak beste, Esther Larrañaga Gizarte Politikarako diputatua, Marian Lazkano Zizurkilgo alkatea eta Bakartxo Tejeria Villabonako alkatea izan ziren. Egoiliarrak eta hauen ahaideak, zentroko langileak eta agintariak, guztira 300 inguru, bazkaltzera bildu ziren ospakizunei amaiera emateko.



Goian, omenaldia jasotako bultzatzaileak, tartean, Luis Abalde atrilaren aurrean; azpian, ezkerrean, omenaldia jasotako langileak, eta eskuinean, langile horietako bat oparia ematen egoiliar bati. I. GARCIA

JOSE LIZASO ▶ ULIAZPI FRAISOROKO ZUZENDARIA

«Lehen behar bati erantzutea zena, egun eskubide bat da»

Hemeretzi urte daramatza Jose Lizasok (Zarautz, 1961) Uliazpi Fraisoro zentroa zuzentzen.

Zer aldatu da zentroa 25 urte hauetan?

Dena aldatu da. Hasieran familien beharrei erantzuteko jarri zen martxan. Donostian egin zen 1967an lehenengo zentroa, eta hainbesteko beharra zegoen 1981an Fraisoron ireki zela bestea. Orduan behar bati

erantzutea bazen, egun eskubide bezala ikusten da ematen den zerbitzua.

Zenbat egoiliar eta langile daude egun?

75 egoiliar daude. Horietatik 65 barnekoak dira, zentroan gau eta egun egoten direnak, eta 10 egunez etortzen direnak. Langileak, 100 inguru.

Zein dira Uliazpik etorkizunera begira dituen erronkak?

Egoiliarren bizi kalitatea indartzea da gure helburua. Beraiek erabakitzen dute, eta ez guk, zer den bizi kalitatea. Lehen medikuak ebakuntza egin behar zela esaten zuen, eta kitto. Orain erabakitze ahalmen handiagoa dugu. Aldaketa bera gertatu da hemen: beraiek erabakitzen dute, eta gu hori bermatzen saiatzen gara. ◀



I. GARCIA

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Osakidetza. Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

Diputazioak. Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaintzaileak behar ditu. 943 313782.

Laborategi teknikariak. Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

Liburutegi laguntzaileak behar dira

zenbait udaletxetan. 943 313782.

Administrari laguntzaileak. Anoeta, Beasain, Bergara, Sorluzale, Mutriku, Zizurkil, Mendaro...

udaletxetan administrari laguntzaileak behar dira. 943 313782.

Peoiak, garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaitetz: 943 313782.

Haur zaintzaileak, hezitzaileak. Eskola publikoetarako plaza libreak. 943 313782.

Peoiak. Udaletxetan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libre.

943 313782.

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa. 943 313782.

GIZARTEA ▶

«Euskal Herriko emakume guztion txanda da orain»

Ahotsak aurkeztu dute Tolosan ekimeneko bultzatzaileek; beraiek hasitako bideari «emakume guztiek batzearen beharra» azpimarratu dute



Ekzer-eskuin: Leire Montes, Gema Zabaleta, Elixabete Piñol, Nekane Alzelai, Kontxi Bilbao, Jone Goirizelaia eta Aintzane Ezenarro. N. LATABURU

NOELIA LATABURU

«Euskal Herriko emakumeek subjektu aktibo izan behar dute bake prozesuan eta horregatik haien guztion txanda da orain». Herenegun, Kultur Etxean, Ahotsak aurkeztu zuten ekimeneko sustatzaileek, hain zuzen ere, «funtsezko ideia hau» azpimarratu zuten. Gema Zabaletak, Elixabete Piñolek, Nekane Alzelaiek, Kontxi Bilbaoek, Jone Goirizelaiek eta Aintzane Ezenarroek ekimenari buruzko euren bizipenak mahagaineratu zituzten. Leire Montes eta Irene Larrazak kazetariak, berriz, zuzendu zuten ekitaldia.

Sei emakumeek «elkarren arteko komunikazioa» azpimarratu zuten hasieratik. Izan ere, iragan apirilaren 8an argitaratu bazuten ere, 2003an ekin zioten bideari alderdi ezberdinetako emakumeek; hain zuzen ere, «inkomunikazioa alderdi guztien estrategia zenean». Bidea luzea izan da, baina «orain hasi baino ez da egiten». Beste herrialdeetako bake prozesuan emakumeen inplikazioak emandako emaitzak aintzat hartuz, aurkeztutako dokumentuaren «berebiziko garrantzia» goraiatu zuten denek ere.

Dokumentuak, eskuin espainarraren eta frantziarraren salbuespenarekin, alderdi guztietako emakumeen babesa jaso

du. Jaso dituen kritiken aldetik, «dokumentuak ez baina bertan parte hartzen duten emakumeek» jaso dituztela azaldu zuten. Bestelako kritikek «ez dute funtsik, hau dokumentu osatua delako».

Emakumearen paperaren garrantziaz ere jardun zuten mahaikideek. «Ez dakigu sen-

tsibilitate berezirik ote dugun, baina orain arte gizonezkoek lortu ez dutena lortu dugu gure artean, hitz egitea, alegia».

Dokumentuaren mamia

Bakearen aldeko militantzia egiten dute bertan biltzen diren emakumeek eta hiru pre-

misetan oinarritzen den «etapa berri bat irekitzeko aukera» nahi dute. Aipatu zuten lehen premisak bakea erdiestea eskakizun kolektiboa eta lehen-tasun politikoa dela dio. «Denon lana da, eta ez da soilik edozein motatako bortxakeria ez egotea». Bakea demokrazia eta gizarte justiarekin zerikusia duela adierazten dute, «askatasunak zein eskubideak oinarri gisa, garai bat ixtea ahalbideratuko duen aldaketa prozesu batekin».

Bigarren premisak proiektu guztiak defendatu behar direla baieztatzen du, «bat bera ere inposatu gabe eta bide politiko eta demokratikoak erabiliz, baldintza berdinetan, proiektu politiko guztiak garatu eta gauzatzea bermatu eta ahalbideratuko duen eszenatoki demokratikoa bilatuz».

Dokumentuaren azken premisak, berriz, «euskal gizarteak erabakitakoa errespetatu eta gauzatu» behar dela adierazten du, «guztiok beharrezko diren berme demokratikoak eta adosturiko prozedura politikoak ezarri eta errespetatzeko konpromisoa hartu» behar du delarik.

Tolosa, plataforma sortzeko bidean

Tolosako Kultur Etxeko aretoa txiki geratu zen, herenegun gaualdean, «tradizio eta sentimendu ezberdinak» dituzten Ahotsak ekimeneko emakumeen aurkezpenean. Gizonezkoen bat bazen bertan; haatik, emakumeak izan ziren protagonista. Kusmin handia piztu zuten sei hizlarien adierazpenek. Hain jende kopuru handia biltzeko, ordea, Tolosaldeko sustatzaileak aritu ziren aurreko egunetan aurkezpenearen berri zabaltzen herri-tarren artean.

Bada, Ahotsak-eko sustatzaileek euren ekimena aurkezteaz gain, Tolosaldeko emakumei plataforma sortzeko deia egin zien. Bertan bildutako ehunka emakumeek adierazi zioten atxikimendua dokumentuari, baina hori «abiapuntua» baino ez dela azpimarratu nahi izan zuten; horrexegatik, hain zuzen ere,



150 lagun inguru bildu zen herenegun, gehienak emakumeak; 140 inguruk, berriz, adierazi zioten atxikimendua dokumentuari. N. L.

plataforma sortu nahi dute. «Emakume guztion parte-hartzea garrantzitsua» dela esanez, zerrenda luzatu zuten, hementik aurrera egingo diren bileren eta ekitaldien subjektu aktiboa izateko.

Guztira, 140 lagun inguruk adierazi zuen atxikimendua

dokumentuari ekitaldiaren amaieran, eta beste hainbat ere plataforma osatzeko prest azaldu ziren. Dena den, eskualdeko plataforma hau osatzeko deialdi berezia egingo dutela jakinarazi dute eskualdeko sustatzaileek, irailetik aurrera. ◀

ERREAKZIOAK ▶

GEMA ZABALETA
 SUSTATZAILA


«Gaur egun harro egon gaitzke arazo larriak gainditu ditugulako eta gure ezberdintasunak albo batera utziz batzen gaituenetik abiatuta ekimen hau aurrera ateratzea lortu dugulako».

ELIXABETE PIÑOL
 SUSTATZAILA


«Inkomunikazioaren legegaldian elkarrizketaren aldeko apustua egin genuen, gu zerbait egiteko prest baizkuden. Oraingo gizona guztiek egin ez duten zerbait eman diogu hasierara».

NEKANE ALZELAI
 SUSTATZAILA


«Gisa honetako proiektua beharrezkoa zen herriarentzako. Egia da dena oso era diskretoan egin dela; dudarik gabe, errespetua izan da gako gure artean harreman estuak lortzeko».

KONTXI BILBAO
 SUSTATZAILA


«Elkarren artean sortu dugun konfiantzak bultzatu gaitu aurrera egitera; jaso ditugun kritikek, gehienetan gizonenak, ez digute atzera botako; ez dute funtsarik, gurea ekimen osatua delako».

JONE GOIRIZELAIA
 SUSTATZAILA


«Alderdietako emakumeak hasi ginen ekimenarekin, baina orain kultur eta kirol alorreko eta emakume eza-gunekin hitz egingo dugu; garrantzitsuak Euskal Herriko emakume guztiak baika-ra».

AINTZANE EZENARRO
 SUSTATZAILA


«Gu ere bake prozesuan subjektu aktibo izango gara aldarririk nahi dugu, ez baitugu kanpoan geratu nahi; Ahotsak-en pausoa oso garrantzitsua izan da».

AMEZKETA ▶

Joxean Tolosa
Txapelketak
aurrera darrai

Joxean Tolosa Txapelketan, Amezketako frontoian ondorengo partidak izango dira: gaur, 21:00etan, kadeteetan, Esnaola Jaunaren aurka; gazteetan, Berroeta Artolaren aurka; eta nagusietan, Uzkudun Galarragaren aurka. Bihar, 16:00etan, kadeteetan Lertxundi Sukiaren aurka; gazteetan, Gerrero Azkunen aurka; nagusietan, Agirre Ugartemendiaren aurka eta Mendiluze San Sebastianen aurka. 22:00etan, Gaztañaga eta Perez (kadeteak), Goikoe-txea eta Martinez (gazteak) eta Esnaola eta Otxotorena (nagusiak) lehiatuko dira.

AISIA ▶

Udaleku irekietan
parte hartzeko
izen-ematea

Uli Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan (Gaztelu, Leaburu-Txarama, Orexa eta Belauntza) egiten ari diren udaleku irekien programazioaren baitan, egun berezi batzuk antolatu dituzte. Hala, gaurkoan, esaterako, Urnietako igerilekura irteera egingo dute. Irteerak udalekue-tan parte hartzen duten haurrei zuzenduak egon arren, gurasoek eta gainerako haurrek ere parte hartu ahal izango dute. Baina, hori bai, plazak mugatuak direnez, bi egun lehenago deitu behar da izena emateko 943 68 22 28 telefono zenbakira.

IBARRA ▶

Herriko jaietako
zozketako
zenbakiak salgai

Urtero bezala, salgai daude Danon Txokoan, Txumitxan, Arkaitz-Azpin, Atarin, Sendi Ekintzan, Guraso elkartean eta Zubiaurren San Bartolome jaietako zozketako zenbakiak. Abuztua bitarte 3 zenbaki euro baten truke eskuratzeko aukera izango da aipaturiko tabernetan. Eskuratzeko den diruaren zati bat sarietarako izaten da, eta beste zati bat, berriz, proiektu bati laguntzeko bideratzea erabaki zuten. Aurtengoan, Sahara Bizi, Tolosaldea Sahararekin elkarreentzat izango da sarietatik soberan geratzen den diru hori.

LIZARTZA ▶ KULTURA

V. Gazte
Eguna bihar,
egun osoan

Hamaiketakoa, kalejira, bazkaria eta musika izango dira, besteak beste



Bazkarira 80 lagun inguru biltzen dira urtero. HITZA

uztailak 15 larunbata

Herriko enparantzan
23:30ean

Antolatzaileak
Azkoitiko Udala
Azkoitiko
tabernariak

ROSARIO FLORES
AZKOITIAN

IÑIGO TERRADILLOS

Lizartzako Gaztetxeak antolatuta, V. Gazte Eguna izango da bihar. Aurtengoa, gainera, berrikuntza batekin dator; izan ere, beste urteetan ez bezala, egun osoko egitaraua prestatu dute. Hala, eguerditik hasita askotariko ekitaldiak izango dira: hamaiketakoa, kalejira, kantuketa, poteoa, patata tortilla lehiaketa, kontzertua... bazkariak eta afariak osatuko dute egitaraua. Iazkoan, esaterako, 85 lagun bildu ziren afarian.

Beste urteetan oso motz geratzen zela-eta aurten egun osoko jaia egitea erabaki zuten antolatzaileek. Bestalde, Gazte Eguna preso zegoen Gaztetxe-kide baten alde egindako ekitaldi bezala sortu zen hasieran; egun, herriko preso politiko guztiak eta euren senideak omenduz antolatutako eguna bihurtu da.

V. GAZTE EGUNA ▶

Egun osoan zehar hainbat ekitaldi gozatzeko aukera izango da bihar Lizartzan.

EGITARAUA

12:00. Hamaiketako-gosaria Gaztetxean, jatekoa eta edatekoarekin.

Ondoren. Kalejira Lizartzako txarangarekin.

14:00. Herri bazkaria plazan. Abesten ariko dira giroa alaitzeko.

Ondoren. Herriko presoen senideen omenezko ekitaldia. **Arratsaldean.** Poteoa herrian zehar.

20:00. Patata tortilla lehiaketa.

Ondoren. Lehiaketako patata tortillekin afaria gaztetxean.

Afariaren ostean. Nekin taldearekin kontzertua, eta ondoren, festa goizalderarte.



943 69 40 01
Ernio-bea, 19

**Villabonako garagardo
azokan zuekin!**



Berria, 15
943 69 09 41



Ernio-bea, 4
943 69 05 91



Nagusia 46
Villabona



943 69 31 54
Anxin, 1



Berria, 25

ALEGIA ▶ JAIAK

Herri kirolak puri-purian biharkoan

Harri-jasotzaileen I. Txintxarri Txapelketa izango da, besteak beste

NEREA URBIZU

Alegiako Udalak prestatutako egitarauaren baitako festak hasiko dira gaur eguerdian.

Aurten, azpimarratzekoa izango da bihar jokatu den Harri-jasotzaileen I. Txintxarri Txapelketa. Bertan lau harri-jasotzaile gipuzkoar ariko dira plaza. 125eko zilindroa, kubioka eta bola erabiliko dituzte.

Larraitz auzoko plazan ariko direnak Joxe Ramon Iruretagoiena *Izeta II.a*, Joxe Mari Iruretagoiena *Izeta III.a*, Joseba Ostolaza eta Aimar Irigoien izango dira. *Izeta II.a* eta Ostolazaren arteko dema izango da deigarrienetako bat; izan ere, *Izeta II.a* lehiaketa ofiziale-tan ez aritzeko erabakia hartu zuenetik ez da erraza ikustea. *Izeta II.a* 12 urtetan txapelduna izan da, eta Ostolaza izan zen Gipuzkoako azken txapelduna.

Biharko irabazlea harri txikiak txapeldun izendatuko dute. Antolatzaileen ustetan, «serio ariko dira denak, lan ona egingo dute. Bidea zaila jarriko dio *Izeta II.ak* Ostolazari, nahiz eta faboritoa bera izan».

Aurreko urtean herri kirolen saioak izandako arrakasta ikusirik antolatu dute txapelketa berezi hau. Hauxe gain, aizkolariak ere izango dira: Floren Nazabal eta Angel Arrospide leaburuarra.

Sarrera doakoa da, eta euria ginez gero pilotalekuan egingo dute ikuskizuna.

Sari ederrak dauzkate harri-jasotzaileek: lehenengoak 1.050 euro, bigarrenak 900 euro, hirugarrenak 750, eta az-

kenak 550 euro. Esan bezala, Larraitz auzoko plazan izango da, bihar, 18:00etatik aurrera.

Gogoratu gaur 10:30etik aurrera, kartel lehiaketa parte hartu deten marrazkien erakusketa udaletxeko arkupetan izango dela ikusgai. Eta 11:30ean, aldiz, Ordiziako erraldoiak eta buruhandiak eta Giroarte dultzaina taldearekin kalejira izango da, Larraitz auzotik abiatuta.

12:00etan, *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean, kontzentrazioa udaletxean izango da, eta ordu berean ere txupoinazoa eta Txintxarriaren igoeira, jaien hasiera iragartzeko. Aurten, futbol 8ko Aralar-Intxurre talde infantileko neskek eta mutilak izango dira suziria jaurtitzan.

Festa alternatiboak

Xantoxen omenezko futbito txapelketa jokatu dute hilabete batzuetan, eta gaur, festa alternatiboetako egitarauaren baitan dagoen kaleko bazkarian



lazko festetetan Aimar Irigoienek ikuskizuna eskaini zuen Alegiko plazan. J. ASTIBIA

txapel-sari banaketa egingo dute.

Aurtengoan, Txurtzil eta Kokox Klan izan dira lehenengo bi saillkatuak. Han izango direla espero dute antolatzaileek.

Macrea umorista irlandarra ere izango da, festa alternatiboetan parte hartzen dutenentzat. Bakea eta umorezko autobusa izango da gizon zelebre honek tratatuko dituen gaiak, denen barre algarak eragiteko asmoz. Poteoa hasiko dute herri guztian zehar honen jarraian.

Egunarekin bukatzeko, Mula-borekin batukadak herriko kaleak alaituko ditu 20:00etatik aurrera. 21:00etan zahargardoa izango da, eta 23:00etan kontzertuak.



lazko Xantox futbito txapelketako irabazleak. HITZA

Galdaragintza
BURNI, S.L. *Ondo pasa jaietan!*
Errotalde, 24 • Tel.: 943 653112 • Faxa: 943 655532
ALEGIA

AUTOCARES TXINDOKI
FESTA ONAK PASA HERRIKOAK ETA KANPOKOAK!
ALEGIA
Tif.: 943 65 30 12

ISKIÑA TABERNA
Goizean Salda
Gauetan martxa!
INTERNET
San Juan, 59 ALEGIA
Tif.: 943653097

ALEGIKO ZAHAREN EGOITZA EDARITEGIA
Alegiko plaza • Tel.: 943 65 58 00
Gosariak, pintxoak, meriendak eta... GIRO JATORRA!

ALEGI AKO UDALA
GUREAN EZ DA BETI JAI BAINA BADIRA MILA MOTIBO KANTATZEKO, DANTZATZEKO ALAI, AGUR BAT ETA OROITZAPENEAN BESARKADA GUREKIN EZ DAUDENAI
ONDO PASA FESTAK!!!
Plaza Nagusia z/g • Tel.: 943 65 30 16 • www.alegia.net

KULTURA ▶

Mimoa, dantza, kantua eta heziketa fisikoa landu dituzte udaleku musikaletan

Jardunaldietan parte hartu duten 24 ikasleek bi aste hauetan ikasitako koreografiak erakutsiko dizkiete gaur gurasoei, arratsaldeko seietan



Udaleku musikaletan parte hartu duten gazteboak, irakasleekin batera. E. EZEIZA

ESTHER REDECILLA ▶ UDALEKUEKAKO KOORDINATZAILEA

«Arduratsuago eta autonomoago izaten ikasi dute haurrek»

Esther Redecilla, beste hiru neskekin batera, udaleku musikaletan irakasle lanetan aritu da. Bestalde, musikaren munduen esperientzia handia du, pianoko irakaslea baita Donostiako Alemaniaren ikastetxean. Mimoko eskolak ematen aritu da udalekuetan. Hala, eskerrak eman nahi dizkio Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolari eta

bereziki, zuzendari Amaia Lizasori, emandako laguntzagatik.

Zer moduzko harrera izan dute udalekuek?

Oso gustura gaude erantzunarekin. Hasiera batean, 24 zirela ikustean, gutxi zirela uste nuen, Zarautzekin-eta konparatuta, baina hau normala da, lehenengo aldia baita.

Nondik sortu zen ideia hau?

Orain dela hiru urte hasi ginen pentsatzen. Hutsune bat baitzegoen musikari aplikatutako jokoan dinamikan. Eta hemendik sortu zen proiektua, modu ludiko batean, eta musika ardatz hartuta, gaztetxoek ongi pasatu dezaten.

Zer egin duzue bi aste hauetan zehar?

50 minutuko eskolak eman ditugu, hauetan lau arlo ezberdin landu ditugularik: alde batetik, mimoa egin dugu. Bestetik, dantza klasikoak-eta egin ditugu, jazz-a ere bai. Kantuko klaseetan, berriz, japonierako abesti bat ikasi dute, baita katalaniazko bat ere, eta beste hainbat euskal kantua. Eta, azkenik, heziketa fisikoko ikastaroak izan ditugu, hau ere landu behar baita.

Zein izan da ikastaro hauen helburua?

Haurrek musikarekin gozatea nahi genuen. Gogorregi hartu gabe, eta modu ez profesional batean, musikarekin kontaktua izatea.

Zer ikasi dute haurrek ikastarotik?



E. EZEIZA

Arduratsuago izaten ikasi dute, baita autonomoago izaten ere. Bestalde, sormena lantzeko ere balio izan dute, eta autodiziplina garatzen ere ikasi dute. Gainera, oso giro ona egon da, eta ongi pasatu dute. **Zer nolako haurrak etorri dira?** Denetik egon da, hala ere, gehienek orain arte ez zuten

batera, euskarari ere garrantzia eman diote, hau udalekuekiko beste ardatzetako bat izan delarik.

Estreina edizio honetan 24 haurrek hartu dute parte, denak ere Tolosaldekoak direlarik. Hauek bi taldetan banatu dituzte: alde batetik, lau urtetik 7 bitarterekoak, eta bestetik, 8tik 11 urte bitarterekoak. Hala, udaleku musikal hauekiko ikastaroak musikari profesionalak, dantza eta kantuan adituak diren maisuek, soinketan lizentziatuek, eta Musika Kontserbatorio Goreneko Kolaboratzaileek eman dituzte. Denera, lau pertsona aritu dira gaztetxoekin lanean.

Aipatu bezala, Chopin Estudioek lau urte daramatzate gisa honetako udalekuak antolatzen, eta dagoeneko Gasteiz, Zarautz, Donostia, Castro-Urdiales, Cartagena, Bilbo eta Barañainean egin dituzte, eta gero eta arrakasta handiagoa lortu dute. Orain dela bost urte edo, hasi zirenean, Xabier Lizaso musikariak aipatu zuenez, beldur ziren haurrak aspertuko ote ziren, «baina aurkeztutako egitarauak ez du horretarako astirik uzten». Gasteizen hasieratik animatu zen jendea udalekuetan izena ematera, baina gainontzekoetan gehiago kostatu zitzaizkien. Hala ere, Lizasok azaldu zuenez, «lehenengo urtean parte hartu zutenek hurrengoetan ere jarraitu dute».

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatuek deitu 635 74 52 91 zenbakira.

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna batean.

Lanegun osorako. Telefono zenbakia: 677 32 99 34.

SALGA!

Pisua. Leitzan, 100m2ko pisua salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Deitu 699 46 13 65 zenbakira.

LEITZA ▶ KIROLAK

Kanflanka Nafarroako Segako txapelaren bila ariko da lehian

Etzi eguerdian, herrian bertan, Garagartzako belatsoan, jokatu du finala Dabid Mariñelarena lanztarrarekin



lazio finaleran, Kanflanka —soin hutsik— eta Mariñelarena lanean. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Etzi jokatu dute Nafarroako Segalari Txapelketa. Leitzan, herrian bertakoa den Jon Kanflanka eta Dabid Mariñelarena segalari nafarrek.

Garagartzako belatsoan, 12:00etan ekinen diote, aurtengoarekin bigarren aldiz jokatu du den finalari, bi segalariak. Iaz arte Lantzeko Mariñelarena segalaria bakarrik zegoelarik, herrialdeko lehiaketarik egite-rik ez zuten; baina leitzar gaztea kirol honetan hasi zelarik, lehendabiziko txapelketa antolatu zuten iaz, aurtengo leku berean egin zutelarik saioa. Orduan, Mariñelarenak irabazi zuten Nafarroako txapela. Aurtun ere biak ariko dira lehian.

45 minutu izanen dituzte segalariak belarra ebakitzeko; bakoitzarentzat seina sail prest egonen dira belatsoan, denera 1.200 bat metro karratu dituztenak. Belar gehien ebakitzen duenak irabaziko du txapela.

Noski, segalariak ez dira ba-

karrak ariko lanean. Bakoitzak laguntzaile bana eta zorroztaile bana eramanen dute ondoren, eta segan hasi eta 10 minutu belarra biltzen eta pisatzen ariko diren beste seina lagun. Kanflankak, iaz Jose Ramon Aia izan bazuen laguntzaile, aurtun Pello Kanflanka bere anaia ariko da langintza horretan. Aurtengo lehiaketan kontrajuezak ere izanen dira, alegia, aurkariaren taldekide bategainbegiratuko ditu bakoitzaren pisaketak.

Kanflankak iaztik «erresistentzian eta batez ere teknikan» hobetu duela adierazi dio HITZARI. 45 minutuko epe horretara ohitzeko «saio pare bat berezi samarrak» egin dituela ere aitatu. Edozein moduz aurkaria «indartsu» dagoela iritzi dio. «Euskal Herrikoan ere sailkatu da aurtuneta». «Belatsoa ere oso ona dago eta ez dago inolako aitzakiarik lanerako», baieztatu, leitzarrek orain arte lortutako prestaketarekin («lan txukun» egitea du helburu.

EZAUGARRIAK ▶

NAFARROAKO II. SEGA TXAPELKETA

Lehiakideak. Dabid Mariñelarena (Lantz) eta Jon Kanflanka (Leitza).

Lekua. Leitzan, Garagartza baserriaren belatsoan —Plazaolako estazio zahararen gainekaldean—.

Eguna. Uztailak 16a.

Ordua. 12:00etan.

Segarako epea. 45 minutu.

KANFLANKAREN TALDEA

Prestatzailea. Pello Kanflanka.

Zorroztailea. Jose Jabier Ariztimuño.

Biltzaileak. Oskar Ariztimuño, Jose Luis Arrizurieta, Beñat Astibia, Joxe Migel Kanflanka, Jabier Olano eta Diego Riaño.

JON KANFLANKA SEGALARI LEHIAKIDEA

«Mariñelarena oso indartsu dago, aurtun Euskal Herrikoan ere sailkatu da eta. Oso prestatuta etorriko da»

«Belarra badago, eta oso ona gainera, eta zola ere bai. Ez du aitzakiarik, aldapa pixka bat izanagatik»

LEITZA ▶ KIROLAK

Steawa-Metaziri lehia bihar eskolako finalean

Futbol txapelketa honetako 3. eta 4. lekuen borrokan Berastegiko bi taldeak ariko dira

J. ASTIBIA

Lehenengo astean atzeratutako Eskolako Futbol Txapelketa finala bihar jokatu dute, azkenik: Steawa eta Metaziri taldeen artean erabakiko dute norgehiagoka; «bixi-bixia eta oso lehiakorra» izanen dela iragarri dute antolatzaileek.

Leitzako futbolzaleak ez ezik, Aresokoak eta Berastegikoak ere biltzen dituen txapelketa honetan bihurtu arratsaldean izanen dituzte azken jardunaldiak. 17:00etan hasita, eta noski, Erleta eskolako harritzko futbol zelaian, azken bi partidak jokatu dituzte. Aitatu finalaz gain, aurrena 3. eta 4. lekuak erabakiko dira.

Honetakoan, gainera, txapelketan parte hartu duten Berastegiko bi taldeak ariko dira aurrez aurre jolasean: Zelai eta Urepele.

Ondoren, 60 minutuko partidak jokatu dituzte, etorriko da finalisten txanda. Bi tal-

deak leitzarrek dira; futboleko federatutakoak eta aritutako jendez osatutakoak omen dira biek. «bat gazteena eta bestea zaharrena», antolatzaileek aditzera eman dute. «Lagun arteko txapelketa izaten da hau. Eta elkarrekin norgehiagokarako grina izaten dugu urtetik urtera», azalduz; aurtengo edizioan, finaleira iritsi diren artean, batean eta bestean, Aurrerako partaideak daude, jokalaririk ohiak eta egungoak tarteko.

«Txapelketan 14 taldek parte hartu dugu; aldiro 7 jokalaririk jokatu arren, bakoitzean ia 16 kide ere badaude, nahi adina aldekata egin daitezke larrik. Beraz, jende askok parte hartzen du, eta horixe da gure helburua: lehiaketa baino, kirola eginez, lagun artean, parte-hartzea sustatzea».

Edozein moduz, parte hartu izanaren oroigarri gisa, eta irabazteagatik ere bai, hainbat sari eta sorpresa banatu dute jolasaren ondoren.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Gaur Mujikaren oroimen ekitaldia eginen dute

UPNko zinegotzia ETak egindako atentatuz hil zela bosgarren urteurrena da gaur

ERREDAKZIOA

Gaur bost urte, ETak egindako atentatuz Jose Jabier Mujika hil zela oroitzu, ekitaldia eginen dute UPNko bere partidukideek, Leitzan, atentatu-

lekuan bertan jarrita dagoen oroigarriaren ondoan.

Iluntzean, 19:15ean, lore eskaintza eginen dute eta ondoren, 20:00etan, bere oroimenezko meza izanen dute elizan.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Euskal selekzioaren aldeko Kostako Itzulia bizikletaz izango da bihar, hilak 15, Triangulotik 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, Txiki tabernan (15 euro). Esaitek antolatuta.
Tolosa. Udaberri dantzari taldeak 2006-07rako umeentzako dantza ikastaroak antolatu ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan, 17:00etik 20:00etara.
Tolosa. Andorrara irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 22tik 25era, Coma Pedrosa eta Pic de Serrere mendiak igoz. Izen-ematea, elkartearen (Gudari, 5. 943 65 27 89).

ERAKUSKETAK

Alegia. Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Gregorio Lopezen lanak, Ostatuan.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.
Tolosa. Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Carmen Mateo pintore tolosarren margolanak, Errota tabernan.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzon.

JAIK

Alegia. Egitarau ofiziala: 10:30ean, kartel lehiaketako marrazkien erakusketa; 11:30ean, erraldioak, buruhandiak eta Giroarte dultzaina taldea; 12:00etan, *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean, manifestazioa; 12:00etan, txupinazioa eta txintxarriaren iguera; 17:00etan, haur jaialdia; 19:00etan, kalejira; 19:45ean, Txintxarri Txiki



Irrintziren X. Garagardo Azokaren ateak irekita

VILLABONA ▶ Irrintzi elkartearen X. Garagardo Azokaren ateak irekita daude jadanik. Atzo arratsaldean hasi ziren pitxerrak betetzen, eta lehen orduetan dagoeneko mugimendua nabari zen. 22 marka izango ditu aukeran garagardozeak eta horrelako azoketan ohikoak diren jakiekin batera. Gaur, bihar eta etzi egongo da beroari aurre egiteko aukera freskagarria Txerminen, ondorengo orduetegan: 18:00etatik 01:00etara. I. GARCIA



eta Txintxarri abesbatzak; 21:00etan, zikiro jatea; 23:00etan, bertolariak. Egitarau alternatiboa (Pirata Eune): 14:30ean, bazkaria eta Xantosen omenezko txapel-sari banaketa; gero, Macrea; 20:00etan, Mulambo; 23:00etan, Silikonay, Txapel eta DJ Talo.

MUSIKA

Tolosa. Balen Lopez de Muniainen saioa, Gau Giron. 22:30ean, Plaza Berrian.
Tolosa. Izeba Pilarren Ilobak. Bihar, 19:00etan, Intxurre tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi ebea. 112.
Tolosa. Ebebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari*.
 22:00-23:00. *Gau bero*.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...
hitza
 agurren tartea

EUSKAL JAIA BILLABONA 2006

Uztailak 29 Larunbata

18:00etan Sagardo dantza eta jaiaren laguntza
 19:00etan ERROMERIA
 Auziluzaren Auziak & Juan Mari Beltran
 21:00etan Auzi herriko plazan: **Zikiro Jai**
 22:00etan ERROMERIA, Tapia eta Leturia
 Garaiko euskal jantziekin parte hartzera animatzen zaiteztegu
 Zikiro jaiaren txartelak salgai ondoko lekuetan: 20€